

GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA EREDU DOKUMENTUA



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Araba

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea

San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa. 01001. Gasteiz.

945 280 745

araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa. 48005. Bilbao.

944 150 300

bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behe. 20001. Donostia.

943 463 526

gipuzkoa@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org

Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak bere Batzar Orokorrean onartu du dokumentu hau 2021eko ekainaren 23an.


Diseinu eta maketazioa: upkomunikazioa.eus

Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak

Laguntzaileak:



0. AURKIBIDEA



1. SARRERA: dokumentu honen zergatikoa eta zertarakoa

2. TESTUINGURUA: Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzara hurbiltzea (GEH)

- 2.1 GGKE-en hezitzaile-rola
- 2.2 GEHren jatorria eta bilakaera
- 2.3 Zer da GEH?
- 2.4 Lankidetzat-politika publikoak eta GEH

3. GEH PROPOSAMENA EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEAN

- 3.1 Testuinguru-erronkak eta GEHren erantzuna
 - 3.1.1 Kultura eta hezkuntza-eredua
 - 3.1.2 Egoera soziala eta politikoa
 - 3.1.3 Sistema ekonomikoa
 - 3.1.4 Ekologia eta ingurumen-egoera
- 3.2 Sektorearen eta GEHk bertan duen presentziaren irakurketa
- 3.3 Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen barnekoaren irakurketa
- 3.4 GEH ereduaren ezaugarriak: eragileak eta lehentasunezko ikuspegiak
 - 3.4.1 Eragileak
 - 3.4.2 Ikuspegiak
 - Giza eskubideak
 - Bizitzaren jasagarritasuna
 - Herritartasun globala eta konprometitua
 - Tokikoa-globala
 - Feminismoak eta aniztasuna
 - Kulturartekotasun kritikoa
- 3.5. Zer jomuga du Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak GEHren esparruan?


1. SARRERA: DOKUMENTU HONEN ZERGATIKOA ETA ZERTARAKOA



Krisi anitz (soziala, ekologikoa, ekonomikoa, zaintzen arlokoa, balioen arlokoa, energetikoa, politikoa, migrazio-arlokoa) dauden testuinguru konplexu batean bizi gara. Krisi horiek sistema ekonomikoaren ondorio dira, lehentasuna ematen diolako kapitala metatzeari, pertsonen eta ingurumenaren eskubideen eta ongizatearen aurretik. Sistema ekonomiko eta sozialak ez ditu kontuan hartzen justizia soziala, genero-berdintasuna eta ingurumen-jasangarritasuna, eta giza

kondizioak berezko dituen hainbat kontu ukatzen ditu, hala nola interdependentzia eta ekodependentzia. Era berean, ikusezin bihurtzen ditu zaintza-lanak, zeinetako gehienak emakumeek egiten baitituzte esparru pribatuan bezala merkatukoan ere, enplegu prekarizatu eta zaintza-kate globalei lotuen bidez.

Egungo eredu ekonomiko eta sozialaren hauskortasuna agerian geratu da COVID-19aren



iritsierarekin. Euskadin eredu horren ahulezia jasandugu, etxeetan konfinatzera eraman baikaitu, mugikortasuna mugatzera, lan-ereduaz birpentsatzera, eta ekoizpen-katea nahiz gure elikadura-katea berrikustera. Hala bada, pandemiak agerian uzten ditu askotariko egiturazko desparekotasunak: estaldura publiko mugatua; lan-sektore prekarioa eta prekarizatua; zaintza-lanak beren gain hartzen dituzten emakume gainkargatuak; arrakala digitala, hezkuntza-sarbidean eragina duena; eta genero-desparekotasuna, zeinak eragina baitu ordaindutako esparruan eta familien barruko banaketan. Hori guztia herritar zaurgarrien kasuan larritzen da, zuzen-zuzenean jasaten ari baitira 2008tik egiten ari diren murrizketa sozialak. Egoera horretan daude, haurrak eta nerabeak ez ezik, honako pertsona hauek ere: etxerik ez duten eta/edo kalean bizi diren pertsonak; genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak; adinekoak; desgaitasuna dutenak; migratzaileak; ijitoak; langile informalak; etxeko langileak; aldi baterakoak; guztiak ere sistemaren ertzetan bizi diren pertsonak.

Era berean, osasun-krisiak eragindako salbues-

penezko egoerak nabarmen utzi du zeinen garrantzitsuak diren honako hauek: berdinen arteko sozializazioa; arteak eta kultura; elkartasunaren, lankidetzaren eta beste balio batzuen sustapena; irakasleentzako eta ikasleentzako laguntza sozio-afektiboa; interdependentzia, globala bezala naturarekikoa ere; Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH ere aurrerantzean) sustatzen ari diren alderdietako batzuk aipatzearren.

Euskadiko GGKE-en Koordinakundekook (Koordinakundea aurrerantzean) diogu egungo garapen-eredua krisian dagoela, eta GEHren alde gaude, tresna baliagarria delako erdigunean pertsonen eta planetaren bizitzaren jasangarritasuna jartzeko aukera ematen duten gune politiko eta sozialak proposatu eta eskaintzeko.

Globalizazio kapitalistak planteatzen duen erronkari erantzuteko, GEHk herritartasun global solidarioa, ahaldundua eta antolatua sustatu behar du, ahalmena duena bizitza ikuspegi lokal eta global batetik erdigunean jarriko duten ereduak prestatu eta abian jartzeko. Horretarako, beharrezkoa da modu bereizian eragiten



GLOBALIZAZIO KAPITALISTAK PLANTEATZEN DUEN ERRONKARI ERANTZUTEKO

GEHk herritartasun global solidarioa, ahaldundua eta antolatua sustatu behar du, ahalmena duena bizitza ikuspegi lokal eta global batetik erdigunean jarriko duten ereduak prestatu eta abian jartzeko.



Dokumentua hiru bloketan dago egituratuta: sarrera, testuingurua eta etorkizunera begirako ikuspegi partekatua proposamena.

diguten zapalketei eta pribilegioei dagokienez kontzientzia hartzea. Era berean, funtsezkoa da erabaki politikoetan (eta ekonomikoetan) eragina izateko benetako partaidetza ahalbidetzen duten gizarte pluralak eraikitzea, eta nazioarteko instantziek, gobernuak, administrazio publikoak eta enpresek giza eskubideak eta ingurumenaren errespetua zaintzen eta sustatzen dituztela bermatzea.

Dokumentu hau beste urrats bat da hezkuntza-paradigma horren alde, eta gure askotariko Koordinakundearen barruan GEHren esanahiaz eta edukiez egindako gogoeta-, eztabaida- eta bateratze-saioen emaitza da. Egiteko, bateratzen gaituen esparru komuna zehazteko ahaleginetan zentratu gara, baina dokumentu honetan ez dago nahitaez osorik jasota zer eta nola egiten dugun.

Dokumentu honek partekatutako gutxiene-ko oinarri komun batetik abiatu eta norantz jo adierazten digun horizontea izan nahi du. Haren bidez, eraldaketarako hezkuntza eraikitzaile, propositibo, hezkidetzazko eta positiboaren alde egiten dugu. Kritika nabarmendu baino gehiago, zer eraldatu nahi dugun, hor jartzen dugu begirada. Egungo testuinguruaren irakurketatik abiatuta, hainbat ikuspegi kontuan hartzen ditugu, Hegoalde Globaletik bereziki. Horretarako, bazterketa-errealitateko kontaktuaren bidez, irakurketak eta ekarpenak egiten ditugu, eta haien jakintzak eta proposamenak sartzen ditugu hezkuntza-ekintzetan.

Era berean, beste urrats bat izatea nahi dugu, GEHri zentraltasun handiagoa emateko Koordinakundearen; inspiratzeko, motibatze, indarberritzeko dokumentua izatea nahi dugu, erakun-

deen beren aldaketetan eragiteko, eta lan-arlo honi prestigio eta garrantzi handiagoa emateko sektorean. Ildo beretik, tresna ireki bat da, bertan oinarritu eta eragiteko proposamen zehatzak garatu ahal izateko beste eragile batzuetarako, hala nola administrazio publikoetarako eta/edo hezkuntza-erakundeetarako, GEHk gizarte-aintzatespen handiagoa izan dezan, eta erdigunean egon dadin, administrazioek (politiken koherentzia eskatuz) eta erakundeek (ekintza-koherentzia bidez) konpromisoak hartzearen ondorioz.


Dokumentua hiru bloketan dago egituratuta: sarrera, testuingurua eta etorkizunera begirako

ikuspegi partekatuaren proposamena. Atal honetan, ekimen honen oinarrian dauden helburuak azaltzen ditugu; bigarreanean, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren testuinguruari ekingo diogu, zabalenetik zehatzenera; eta, hirugarren blokean, gure lurraldeko GEHrako horizonte bat proposatuko dugu.

Dokumentu hau Koordinakundearen barne-erabilerarako da, baina eskura dute esparru honetan zer jarrera dugun jakin nahi duten hezkuntza-eragileek eta erakundeek, edo baliagarri izan dezaketenek beren hezkuntza-jardunak bideratzean.



Kritika nabarmendu baino gehiago, zer eraldatu nahi dugun, hor jartzen dugu begirada, gauden testuinguruaren irakurketatik abiatuta, hainbat ikuspegi kontuan hartuta, Hegoalde Globaletik bereziki, eta interpretazioak eta ekarpenak egiten ditugu, bazterketa-errealitateekiko kontaktuaren bidez eta haietako jakintzen eta proposamenen ekarpena eginez.



Horrenbestez, Koordinakundearen Jokabide Ko-
dean jasotzen den bezala, Gizarte Eraldaketa-
rako Hezkuntza prozesu aktibo eta sortzaile bat

- Iritzi publikoan beste kultura batzuetako ohitura eta bizimoduekiko ulerberatasun- eta errespetu-giroa sustatzea, besteak beste, errealitatea beste ikuspegi batzuetatik nola ikusten duten adieraziz, Hegoaren ekarpenak, kosmobisioak eta jakintzak balioetsiz eta begirada eta gogoeta berri horiek txertatuz.

- Gizartea aldatzeko balioak eta jarrerak sustatzea, irizpide hauetan oinarrituta: justizia, bakea, zuzentasuna, eskubide- eta aukera-berdintasuna emakumeen eta gizonen artean, demokrazia, parte-hartzea, elkartasuna eta ingurumena zaintzea.

- Herrialde pobretuekiko konpromiso zehatza bultzatzea, ikuspegi dekolonialitetatik eta post-garapenetik datozen eztabaidetan oinarrituta.

- Tresna, trebetasun eta baliabide zehatzak ematea herritarrek mobilizatzeko, eta eragin sozial eta politikoa izateko, erronka globalak di-rela-eta aldaketarako subjektu aktibo bihurtzen.

Era, berean, pentsatzen da prozesu bat dela, errealitatearen azterketa kritikoa egiteko tresnak ematea xede duena, pertsonen autonomia handiagoa izan dezaten beren errealitateari buruzko erabakietan.

Hartara, GGKEok eginkizun garrantzitsua betetzen dugu justiziaren aldeko ezagutzen, jarren eta balioen sustapenean, bai eta herritartasun global kritikoa eta, eskubideen ikuspuntutik, konprometituaren sustapenean ere. Eta hala, hezkuntza-prozesu jarraitua bultzatzen dugu bizitzaren fase guztietan, hezkuntza formalaren nahiz ez-formalaren eta informalaren bidez, eta herritarrek eraldaketarako subjektu aktibo bihurtzen ditugu, ikasteko, gogoeta egiteko eta jarduteko prozesuan laguntzeaz gain.

1

Iritzi publikoa informatuta edukitzea

2

Beste kulturekiko begirunea sustatu

3

Baloreak sustatu, aldatzea, justizia...

4

Herrialde pobretuekiko konpromiso zehatza bultzatzea

5

Baliabide zehatzak ematea herritarrek mobilizatzeko

6

Errealitatearen azterketa kritikoa egiteko tresnak ematea

2.2 GEH-REN JATORRIA ETA BILAKAERA

GEH aipatzeaz gain, aurretik izandako ikuspegiaz hitz egin behar dugu: Garapenerako Hezkuntzaz (GH aurrerantzean). Taula honek ikuspegi horren bilakaera azaltzen du, bai eta fase bakoitzaren ezaugarri bereizgarri nagusiak ere:

Belaunaldiak	Ikuspegia	Eragile nagusiak
1. belaunaldia (40ko–50eko urteak)	Karitate- eta laguntza-ikuspegia (Hegoan hezteak)	GGKE (lankidetzak Hegoan eta sentsibilizazioa lparrean).
2. belaunaldia (60ko urteak)	Ikuspegi desarrollista (azpigarapena vs garapena), aurrerapen-bide bakarra (Hegoan hezteak)	
3. belaunaldia (70eko–80ko urteak)	Ikuspegi desarrollista, baina lparrearen eta Hegoaren arteko botere-harremanen eta azpigarapenaren kausen azterketa gehituta. Indarra hartzen du GH lparrean ere beharrezkoa delako ideiak.	
4. belaunaldia (80ko–90eko urteak)	Ikuspegia ez da hain desarrollista, eta barruan hartzen ditu feminismoa, garapen jasangarriaren teoria eta eredu kapitalistaren kritika gogorra.	GGKE + gizarte-mugimenduak (feminismoak, ekologismoak, giza eskubideak, besteak beste).
5. belaunaldia (90eko–00ko urteak)	Aurreko proposamenaren ildoko ikuspegia, baina globalizazioaren inpaktuetan eta herritartasun globalaren kontzeptuan zentratuta (erantzukizuna-elkartasuna). Ardatz berria: Milurtekoaren helburuak.	GGKE eta gizarte-mugimenduak, Hego-Hego lankidetzak gehituta, eta lparrean sentsibilizazioa gaindituta.
6. belaunaldia (Gaur egun)	Ikuspegiak garapen-eredu hegemonikoaren kritika gaitzen du, zalantzan jartzen du garapenaren kontzeptua bera, eta “GH” izena ere aldatzen du, gizarte-eraldaketa jartzeko erdigunean. Teoria postdesarrollistak gehitzen dira, hala nola desazkundera eta bizitza ona (androzentrisismoaren aurkako borroka). Arreta berezia jartzen da erreferenteetan, asko eta askotarikoak baitira, eta eurozentristotik ateratzen ahalegintzen da.	GGKE eta gizarte-mugimenduak, eta indarra hartzen dute herritarren eraginak eta kontzientizazioak, sentsibilizatzeko jardura tradizioetatik harago (gizarte zibilaren erantzukizuna eta ahalgintzea, aldaketa-eragile moduan).

Geuk egina. Iturria: G. Celorio Díaz, J. Celorio Díaz, A. Lopez de Munain Solar, “Garapenerako Hezkuntza Unibertsitatean. Praktika eraldatzaile bati buruzko hausnarketak”. Hegoa, 2012.

2.3. ZER DA GEH?


GEHren esanahiari buruzko gogoeta- eta eztabaida-prozesu baten ondorioz, Koordinakundean honako hau adostu dugu:

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza hezkuntza-arloko paradigma/prozesu emantzipatzaile bat da, kontzientzia-hartze kritikotik abiatuta herritartasun globala eta ahalduntze indibidual eta kolektiboa sustatzen dituen, pertsona eta herri guztie-

kin eta planetarekin bizikidetza zuzen, bidezko eta jasangarria izateko oinarri moduan.

Hurrengo grafikoan adierazten den bezala, beraz, GEHk kritikoki hausnartzera interpelatzen gaitu, ekintzara jo eta eredu ekosozial zuzenak sustatzeko, informazio-, prestakuntza- eta gogoeta prozesu pertsonal eta kolektibo baten bidez, eta harremanak maila indibidual, sozial eta kolektiboan (pertsonak, ekosistemak, planetak eta abar) eraldatzeko gaitasunarekin.

GEHren ELEMENTUAK



SENTITZEA

- Gorputzarekin konektatzea, besteekin eta planetarekin duen interkonexiotik eta interdependentziatik abiatuta
- Emozioak igarotzea eta baliozkotzea
- Gune seguruak eta fidagarriak sortzea

PENTSATZEA

- Zalantzan jartzea eredu menderatzaileak eta sustraitutako sinesmenak
- Informatzea eta prestatzea
- Pribilegioak aztertzea

JARDUTEA

- Ekintzak, erreibindikazioak eta borroka sozialak zabaltzea, eta haiekin bat egitea.
- "...tzeko boterea" baliatzea, eta ez "...ren gaineko boterea"

Hartara, bizitzaren eta planetaren jasangarritasuna erdigunean jarri eta haiek zaintzeko konpromisoa hartzeko aukera ematen diguten eredu eta paradigmak eraikitzeko beharrarekin eta gaitasunarekin lotzen gaitu. Helburua da sustatzen den gizarte-, politika-, ingurumen-, ekonomia-, kontsumo- eta kultura-eredua inklusiboa izatea,

eta elkartasuna, genero-berdintasuna, justizia soziala, kulturartekotasun kritikoa eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzea. Era berean, nabarmendu behar da GEH ez dela inola ere hezkuntza-paradigma estatiko bat, eta testuingurutara nahiz inguruko ezaugarrietara egokitzeko ahalmena duela ezaugarri.

2.4 LANKIDETZA-POLITIKA PUBLIKOAK ETA GEH

Euskal Autonomia Erkidegoan, uste dugu (H)ABIAN Estrategia dela EAEko administrazio publikoen GEH arloko erreferentziazko estrategia.

Esparru-dokumentu honek bat egiten du (H)ABIANekin zenbait ikuspuntu eta edukitan; honako hauetan:

Herritartasun global jasangarri eta zuzenerako alternatibak bilatzen eta eraikitzen dituztenei laguntzea

GEHko ikuspegi politikoak eta pedagogikoak sustatzea eta hartzera bultzatzea

Eskubideen ikuspegia sustatzea eta hartzera bultzatzea

Ikuspegi lokal-globala sustatzea eta hartzera bultzatzea

Etengabe ikastea erreferentzia izatea




Begirada zabaltzen badugu, ikusten dugu Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza zenbait esparru internazional, estatal eta autonomikotan kokatuta dagoela. Koordinakundeari dagokionez, esparru hori da gure lanaren ardatza, garapenerako politiken koherentzia-ikuspegia, jakinda administrazio publikoen jarduketan eskatu behar dugula pertsonak erdigunean jartzea lehenesten duen paradigma hori erabiltzea. Esparru horiek irudi honetan ageri dira:

NAZIOARTEKO ESPARRUA	AGENDA 2030 2015ean, NBEk Garapen Jasangarriari buruzko AGENDA 2030 onartu zuen. Garapen jasangarriarako 17 helburu ditu; besteak beste: pobrezia desagerraraztea, klima-aldaketari aurre egitea, hezkuntza, emakumeen berdintasuna, ingurumenaren defentsa eta gure hirien diseinua.
EUROPAKO ESPARRUA	Garapenerako Hezkuntzari eta Europako iritzi publikoa garapenerako lankidetzaren alde sentibilizatzeari buruzko ebazpena. Europako Kontseiluak onartu zuen, 2001ean Garapen-arloko hezkuntzaren eta sentibilizazioaren garapenari eta ekarpenari buruzko Europako adostasuna, 2007. urtekoa Europako Hezkuntza Globalari buruzko 2005-2014ko Maastrichteko Adierazpena
ESTATUKO ESPARRUA	Espainiako Lankidetzaren GEH Estrategia (2008) Estrategia sektorialeko dokumentu hori Espainiako lankidetzak plangintza-arloan egindako beste ekarpen bat da, eta, gainera, gaiarekin zerikusia duten eragile guztien gogoetaren eta partaidetzaren emaitza da. 2018-2021eko Espainiako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailea GEH funtsezko prozesu bat da Espainiako Lankidetzarentzat, eta helburutzat du herritarrek konpromisoa hartzea eta parte hartzea garapen eraginkorra eta kalitatezkoa lortzeko politikan, ezagutzaren eta elkartasunarekin, justizia sozialarekin eta giza eskubideekin zerikusia duten gaitasunak, balioak eta jarrerak garatzearen bidez.
EAE-KO ESPARRUA	1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa Legearen arabera, garapenerako heziketa honako xede hauek dituen da: "Iparraldearen eta Hegoaldearen garapen ezberdinarekin zerikusia duten arazoen arrazoi eta ondorioak ezagutaraztea, herritarrengan arazo horien gaineko kontzientzia kritikoa piztea eta arlo horretan elkartasunezko eta konpromiso aktiboko jarduerak eragitea. Garapenerako heziketaren kontzeptuaren barruan sartuta daude gizartean sentibilizazioa eragiteko ekintzak, prestakuntza-ekintzak eta ikerketa-ekintzak". 14/2007 Legea, abenduaren 28koa, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarena Aitortzen du zeinen garrantzitsua den herrialde pobretuekiko justizia eta elkartasunaren aldeko hezkuntza eta sentibilizazioa sustatzea.

Aipatutakoez gain, uste dugu bidezkoa dela esatea badaudela beste lege batzuk, nazioarteko lankidetzari lotutakoetatik harago joanda, eragina dutenak GEHren lanean. Gure esparru hertsia gairatzen duten markoak dira, baina nolabait

antolatu eta balia daitezke heziketa eraldatzailerako sustatzeko; besteak beste, hauek dira: Giza Eskubideen Adierazpena, hezkuntza- eta gazteria-arloko legeak, eta ekonomia sozialari eta solidarioari buruzkoak.

3. GEH PROPOSAMENA EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEAN



3.1. TESTUINGURUAREN ERRONKAK ETA GEH- REN ERANTZUNAK

Atal honen ardatza diren erronkei eta problematikei GEHtik erantzuten zaie, aldaketa eraginkorrak lortzeko maila guztietan, eta justizia soziala, genero-berdintasuna eta ingurumen-jasangarritasuna lortzeko bidean aurrera egiteko. Zehazki, lau gai handi haven barruan egituratu ditugu:

- Hezkuntzaren eredua eta kultura
- Egoera soziala eta politikoa
- Sistema ekonomikoa
- Ekologia eta ingurumen-egoera

Esan behar da gogoeta handiagoa egin dela hezkuntzaren eredu eta kulturaren azpiatalari buruzko gaiari heltzean, GEHtik garatu beharreko estrategiei estu lotuta egoteagatik. Era berean, COVID-19aren krisiak argi utzi du egungo garapen-eredua berrikusi behar dela, eta, testuinguru

horretan, uste dugu hezkuntzak funtsezko eginkizuna betetzen duela.

3.1.1. Hezkuntzaren eredua eta kultura:

Administrazio publikoek, pedagogia-proposamen eraldatzaileetan aurrera egin badute ere, oraindik ere zenbait erronkari aurre egin behar diete, osorik eta hezkuntza-etapa guztietan bultzatzeko herritartasun global, kritiko eta konprometituaren aldeko hezkuntza-ereduak.

Ondoren, identifikatutako erronka nagusiak aipatzen dira:

- Hezkuntza-erakunde gehienek heziketa eraldatzaileko praktikak eta esperientziak ezartzeko erronka dute. Hala ere, hezkuntza-ereduak sistema hegemonikoa betikitzen du, eta, gehiengotik, badirudi oraindik ere lehenesten dela ikasleei eduki akademikoak helaraztea, atzean utzita beste proposamen batzuk, ikuspegi holistikotik,



Administrazio publikoek, pedagogia-proposamen eraldatzaileetan aurrera egin badute ere, oraindik ere zenbait erronkari aurre egin behar diete, osorik eta hezkuntza-etapa guztietan bultzatzeko herri-tartasun global, kritiko eta konprometituaren aldeko hezkuntza-ereduak.

gainera, bestelako ikaskuntzak eta gaitasunak garatzeko estrategiak dituztenak. Haien artean, hauek nabarmentzen dira: norberaren talentuen ezagutza eta garapena; sormenaren garapena; lan kooperatiboa; errealitate politiko eta soziala norberaren pentsamenduan oinarrituta zalantzan jartzen duen azterketa; trebetasun sozio-afektiboen sustapena; autoestimua eta autoezagutzaren sustapena; eta gorputza, emozioak eta burua integratuz egindako lana, garapen pertsonala ziurtatzeko beste hainbat kontu garrantzitsuren artean.

- Era berean, hezkuntza-ereduak beste paradigma batzuk baztertzeko joera du; adibidez, jatorrizko herrien kosmobisioa, ikuspegi eko-sozialaren integrazioa eta komunitateen eta haien lurraldeen arteko lotura. Gauza bera gertatzen da ikuspegi feministarekin. Egia da gaur egun ahalegina egiten ari dela hezkidetzaren sustatzeko hezkuntza-erakundeetan, baina oraindik ere arazoak daude gizonen eta emakumeen artean bidezko ez diren harremanak sortzen dituzten estereotipoak eta genero-rol tradizionalak modu

eraginkor eta erabakigarrian hausteko hezkuntza modua ezarri nahi denean.

- Bestalde, ikastetxeek, arlo formalean, aukera ematen dute hitz egiteko lurraldeko eragileekin, eta, gehienetan, interakzioa dute guraso-elkarrekin. Hala ere, hezkuntza-erakunde askotan oraindik ez dago oso zabalduta beste eragile komunitarioekiko interakzioa (besteak beste, auzo-elkarteak, kultura-elkarteak, gizarte-elkarteak eta landa-inguruneak).

- COVID-19ak agerian utzi du nolako zailtasunak dituen hezkuntza-sistemak urruneko hezkuntza-eredura eraginkorki egokitzeke, eta, horren bidez, ikasleen sarbide unibertsala bermatzeko. Eskolak ixteak gehien familia sozioekonomikoki zaurgarriak eta hezkuntza-premia bereziak edo ikaskuntza-arazoak dituztenei eragin die. Hezkuntza digitalean sarbidea izateko aldean arazoak gailu elektronikoak edo konektagarritasuna izateko mugekin zerikusia duten kontuetatik harago doaz, eta, era berean, garrantzitsua da komunikaziorik, jarraipen emozional eta akademikorik eta laguntzarik ez izatea irakasleen eta



ikasleen artean. Eskolak itxita, are gehiago egokitu zaie familiei ikasleei laguntzea heziketa-prozesuan, eta, hala, desberdintasunak larriagotu egin dira, ikasle guztiek ez dutelako familia-laguntza bera jasotzen.

- Hezkuntza informalarik dagokionez, badaude tresna batzuk baliatzean bat datozenak garapen-eredu hegemonikoarekin. Batzuetan, sare sozialen bidez, oraindik ere eredu nagusien arabera diskurtsoak eta jarrerak ikusten ditugu: matxistak, arrazistak, kapazitistak, transfoboak, homofoboak, lodifoboak... Gainera, teknologia berrien erabilera arduragabeak kontuan hartu eta prebenitu beharreko ondorio kaltegarriak izan ditzake; besteak beste: indibidualismoa; trebetasun sozio-afektiborik eza; errealitatearekin loturarik ez izatea; eta testuinguruan kritikoki kokatzeko ezintasuna. Hala ere, gune egokia eta eraginkorra ere badira beste narratiba feministak, arrazakeriaren kontrako eta antikapitalista batzuk ikusarazteko, erreferentziak hurbiltzeko, askotariko harreman modu sozio-afektiboak proposatzeko eta hezkuntza-esparru sortzaileak eta eraldatzaileak adierazteko.

Nola ulertzen dugun GEHk errealitate honetan emandako erantzuna:

- Gure ikuspegiaren arabera, hezkuntza heziketa formala baino askoz zabalagoa da, eta aipatzen dugu hezkuntza ez-formalaren eta informalararen balioa.

- Gure ustez, erakunde publikoena da erantzukizuna kalitatezko hezkuntzarako eskubidea lortzeari dagokionez; izan ere, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera: “Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du”.

Hortaz, uste dugu ezen, kalitatezko hezkuntza izateko eskubiderako sarbide unibertsala bermatzeko, ezinbestekoa dela hezkuntza publikoak ziurtatzea hezkuntza-jardun eraldatzaileen ezaipena.

- Ikasleen beharrak erdigunean jartzen dituzten metodologia eta jardunbide guztiak baliosten ditugu. Hartara, aintzat hartzen ditugu, ezagutza transmititzeaz gain, kompetentziei, harremanei eta balioei protagonismoa ematen dieten ikaskuntza-metodologia berrien garapena eta aplikazioa. Era berean, aintzat hartzen ditugu, ekoizteko heztetik harago, desikasteko hezte

xede duten pedagogia kritikoak, zalantzan jartzen dutelako aurrez ezarritako ordena nagusia, zeinak, askotan, bidezkoak ez diren bote-re-harremanak betikotzen baititu. Zehazki, ikastetxeetan hezkidetza eta, bereziki, pedagogia feminista indartzearen alde gaude.

- Uste dugu ikasgeletako aniztasuna elkartzeko aukera bat dela, errespetua, elkarrizketa eta zirikusia duten alde guztien ikaskuntza sustatzekoa.

- Ikasleei eta gainerako hezkuntza-eragileei ahotsa eta erabakitzeko aukera ematen dizkieten partaidetza-guneak sustatzen ditugu, gaitasunak sortu eta justizia sozialaren alde mobilizatzen den herritartasun aktibo, parte-hartzaile eta kritikoa sortzeko.

- Era berean, sormena defendatzen dugu, tresna baita kontu kognitiboak, emozionalak eta erlazionalak kudeatzeko, eta hezkuntza-gune formal eta ez-formal guztietan bultzatu nahi dugu. Alde horretatik, aitortzen dugu arteak ahalmen handia duela gizartea eraldatzeko tresna moduan, eta uste dugu antzerkia, pintura, musika eta idazkuntza emozioak eta pentsamendu kritikoa bideratzeko eta indartzeko tresnak direla.

- Komunitatearentzat irekita dauden ikastetxeak aldeztu ditugu, gizarte-, hezkuntza- eta kultura-harremanak bultzatu dituzten, parte-hartzea, inklusioa eta komunitatea sortzea oinarritzat hartuta. Alde horretatik, Koordinakundean lanean ari gara, gizarte-eragileei hezkuntza-baliabideak emateko horretarako dugun webgunearen bidez (<https://recursoseducativos.ongdeuskadi.org/eu/>).

- Hezkuntza ez-formalari dagokionez, funtsezkotzat jotzen dugu, bizitza-fase guztietan hezkuntza integralean sarrera izatea sustatzen duelako. Era berean, uste dugu proposamen egokia dela eskubideen ikuspegitik hezteko, autoezagutza bultzatzeko, bizitzarako trebetasuna indartzeko, aisiaz eta denbora libreaz gozatzeko eta sormena, lankidetza, elkartasuna eta gisako gaitasunak garatzeko.

- Unibertsitate-instantziei dagokienez, erdi-gunean bizitza eta zaintzak jartzen dituen unibertsitatearen alde egiten dugu, ingurumen-jasangarritasunarekin eta kulturartekotasunarekin konprometitzen denaren alde. Gure ustez, unibertsitateak ezagutza eta eztabaida teorikoa eta aplikatua eraikitzeke gunea izan behar du, guztion



COVID-19AK AGERIAN UTZI DU NOLAKO ZAILTASUNAK DITUEN HEZKUNTZA SISTEMAK

Eskolak ixteak gehien familia sozioekonomikoki zaugarrirei eta hezkuntza-premia bereziak edo ikaskuntza-arazoak dituztenei eragin die.

ongia eraikitzen lagunduko duena. Unibertsitateak bere funtzio soziala bete behar du, eta gogoeta kritikoa egiteko gunea izan, ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako eredu soziala sustatzeko; gainera, sentsibiltatea eta konpromisoa izan behar du herritartasun globala sortzeari dagokionez.

Alde horretatik, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak unibertsitate- eta gizarte-eragileak Unibertsitate Kritikoa Sarea izeneko webgunearen (<https://www.uks.eus/>) bidez elkartzen diren prozesuak sustatzen ditu. Sare horretan, Gipuzkoako GGKEek, mugimendu sozialek eta EHUko irakasleek, ikasleek eta ikertzaileek hausnartu eta jardun egiten dute, unibertsitate publikoaren rol soziala sustatu eta indartzeko.

- Hezkuntza informalarri dagokionez, baliabide ekonomiko, humano eta estruktural gutxi izanda ere, eta hezkuntza-eragileak asko eta askotarikoak direla kontuan hartuta, alfabetatze teknologikorako lan egiten dugu, bai eta komunika-

zio-tresnen kontsumo eta erabilera arduratsua eta kritikoa sustatzeko ere. Uste dugu komunikazio eta erlazorako teknologia digitalak tresnak izan daitezkeela tratu onean oinarritutako beste erlazio-eredu batzuk lantzeko, eta herritarrek izan ditzaketen arriskuak ahalik gehiena gutxitzeko.



Hortaz, GEHk eraldaketa sozialerako ikaskuntza-kultura sustatu nahi du, pertsonak eta komunitateak beren ikaskuntza-prozesuaren protagonista izan daitezen Hego Globalaren begirada eta haren proposamenak eta jakintzak barneratzen dituen ikuspegi lokal-global batetik. Era berean, pentsamendu kritikoa, elkartasuna, berdintasun-harremanak, integrazio kognitiboa, emozionala eta korporala, bizitzaren zaintza eta jasangarritasuna finkatu nahi ditu, oinarriak izan daitezen herritartasun globala sustatzeko hezkuntza-komunitatearen barruan. Hezkuntza-kultura horretan, ikaskuntza-metodologia kritikoek funtsezko lekua dute jakintzen eraikuntza kolektibo horretan.

3.1.2 Egoera soziala eta politikoa:

Egungo garapen-ereduak berekin ekarri du pobrezia, desparekotasuna eta injustizia areagotzea, eta aurrekaririk gabeko bazterketa-prozesuak sortzen ari da. Aberastasuna desberdin banatzeak eragina du pertsonen hezkuntzan, osasunean, enpleguan eta gizarte-zerbitzuen estalduran sarbidea izateko moduan, eta alderdi horiek guztiak guztiz agerikoak dira COVID-19aren testuinguruaren ondoren. Gainera, Boaventura de Sousa Santos-ek demokraziaren krisiaz egindako gogoetari helduta, egungo garapen-ereduak desparekotasuna

sortzen du boterea eskuratu eta banatzeaz den bezainbatean, eta, hartara, demokrazia errealak zailtzen ditu.

Esparru politikoan, gorroto-diskurtsoak ugartzen ari dira eta, horren ondorioz, xenofobia handitzen ari da eta atzerantz egiten ari da, besteak beste, emakumeen, LGBTBIQ+ pertsonen eta pertsona arrazializatuen eskubideetan.

Era berean, eredu horrek ikusezin bihurtzen ditu zaintza-lanak, eta, horregatik, estaldura handiago eskatzen dugu kalitatezko zerbitzu publikoetan, bai eta gizonen eta emakumeen, enpresen eta administrazioen arteko erantzunkidetasuna sustatzeko ere.



Nola ulertzen dugun GEHk errealitate honetan emandako erantzuna:

GEHn herrien eta pertsonen arteko elkartasuna aldeztu dugu, eta atzera ez egi-
tea hainbat hamarkadatan borroka sozialaren bidez lortutako eskubideetan. Har-
tara, tresnak ematen ditugu desparekotasunen sakoneko arrazoiak ezagutu eta
borrokatzeko, eta begirada etnozentriko, heteronormatibo eta antropozentrikoa
gainditzen duen hezkuntza-eredu baten alde egiten dugu. Horrenbestez, gizarte
solidarioa sustatu dugu, gaitasuna duena errotik erantzuteko gaur egungo krisi humanitarioei.



Iturria Mugarik Gabe, Guatemalako Foro Soziala


3.1.3 Sistema ekonomikoa:

Egungo garapen-eredua ekoizpen eta kontsumoaren hazkunde mugagabearen oinarritzen da, eta gehiegizko eta ezin jasanezko mailetara iristen da, kontuan hartu gabe planetaren muga fisikoak eta aberastasunaren banaketak gutxieneko baldintza batzuk bermatzea gizartean pertsona guztientzat. Gainera, genero-desberdintasunaren gainean eraikitzen den eta hori elikatzen duen sistema patriarkal eta ekonomiko bat da. Sistema lanaren banaketa sexualaren gainean eraikita dago, gainera, eta emakumeei erreproduzio-lanak esleitzen dizkie, ikusten ez den moduan, ordaindu gabe eta baliorik gabe egin

ditzaten, emakumeen gainera gizonen mendetasunaren ondorioz, sexu- eta genero-aniztasuna baztertuta.

Eredu horrek merkantilizazioa lehenesten du giza eskubideen aurretik, eta behin eta berrizko krisiak sortzen ditu, egungo ordena ekonomikoaren ezaugarri diren dinamika eta prozesuen ondorioz: lan-prekarizazioa; erauzketa-praktikak; ekoizpenaren deslokalizazioa; finantziarizazio ekonomikoa; paradisu fiskalak; eta austeritate-politika ekonomikoak; besteak beste.

Munduko ekonomia gidatzen duen eredu ekonomikoa sakonki desparekoa da, gutxiengo bati egiten dio mesede, eta, gehienetan, dirutza han-



Egungo garapen-eredua ekoizpen eta kontsumoaren hazkunde mugagabearen oinarritzen da, eta gehiegizko eta ezin jasanezko mailetara iristen da, kontuan hartu gabe planetaren muga fisikoak eta aberastasunaren banaketak gutxieneko baldintza batzuk bermatzea gizartean pertsona guztientzat.

diak dituzten kapitalak eta multinazionalen etekinak artifizialki desbideratzen dira zerga-paradisuetara, eta kalte larria egiten dute mundu osoko zerga-bilketetan. Era berean, boterea ematen zaie enpresa transnazional handiei, eta haien aldeko araudiak eta legeak egiten dira; merkataritza eta inbertsio itunak, adibidez.

Sistema ekonomiko horren ondorioz, herrialdeen arteko eta barruko desberdintasunak etengabe areagotzen dira, eta boterea elite ekonomiko batean metatzeko prozesuak legitimatzen dira mundu osoan, baina milioika pertsona sistematik baztertuta geratzen dira: iheslariak; klima-aldaketaren ondorioz lekualdatuak; langabeak;

etxez gabetuak; prekarizatuak; egoera batzuk aipatzearen.

Sistemaren eraginkortasuna, neurri handi batean, pentsamendua hezkuntza-egituren bidez birsortzearen ondorio da, harreman sozialak naturalizatzen dituztelako, prozesu espontaneoak eta ikasi gabeak balira bezala, bai eta ordena ekonomiko kapitalista ere, unibertsalki posible eta nahi izatekoa den eredu bakarra balitz bezala. Ekonomiaren aztergaia merkataritza-alderdiak baino ez dira, eta izadia, gorputzaren beharrak eta giza harremanak ikusezin bihurtzen dira, bai eta boterearen erreprodukzioa ere (klasean, generoan, arrazan eta abarretan oinarrituta).



Nola ulertzen dugun GEHk errealitate honetan emandako erantzuna:

Horren aurka, GEHk Ekonomia Zuzen eta Solidarioari buruzko ikuspegi berriak onartu eta sustatzen ditu, ekonomia bitarteko gisa aldarrikatzen dutelako, eta ez helburu gisa, pertsona eta komunitatea garatzearen alde baitago; eta tresnatzat jotzen baitu pertsonen eta gure ingurune sozialaren bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

GEHren aldekoak bat egiten dugu ekoizpen-, kontsumo- eta harreman-ereduetan alternatiba eraldatzaile moduan azaltzen diren ekonomia feminista, ekologiko, sozial eta solidarioaren aldeko proposamenekin. Era berean, kontsumo kontziente, kritiko eta eraldatzailea aldeztu dugu, bai eta garapenarekiko ikuspegi dekoloniala ere, barruan har ditzan beste eredu ekonomiko batzuk, hala nola nahi izateko alternatibak, Post-garapenaren korranteak sustatzen duen bezala.

3.1.4. Ekologia eta ingurumen-egoera:

Ekoizpen-sistemen eragina eta kontsumo-gizarteak dira ingurumena hondatzearen arrazoi nagusiak, eta hondatze horren adierazgarri dira klima-aldaketa, bioaniztasunaren murrizketa eta ekosistemen galera. Garapen-sistema hegemonikoak kontsumoa etengabe handitzea behar du, petrolioaren, mineralen, metalen, gas naturalaren eta gisako ondasun natural ez-berriztagarrien erauzketa masiboan oinarrituta, baina bideraezina da etengabeko hazkunde-sistema; izan ere, egun, ekoizpen- eta kontsumo-siste-

ma planeta-mugak gainditzen ari da. Gainera, pertsonen migrazioak gertatzen ari dira, inpaktu ekologiko horien eta behartutako lekualdaketen ondorioz. Kontsumo-eredu nagusiaren ondoriozko hondakinen kudeaketak ere inpaktu ekologiko handia du Hego Globaleko herrialdeetan.

Herri pobretuek jasaten dituzten ingurumen-inpaktu gehienak herri aberastuen ekoizpen eta kontsumo motaren ondorio dira, zeina batez ere enpresa transnazionalak kontrolatzen baitute nazioartean.



Nola ulertzen dugun GEHk errealitate horri ematen dion erantzuna:



Aldezten dugun GEHk sentsibilizazioa eta ekosistemak errespetatzen dituzten tresnak sustatzen ditu, haietan ahalik eta kalterik txikiena egiteko. Hezkuntza ekosozialak erakutsi behar du izadiaren parte garela, eko-mendekoak izatetik harago. Helburua da gainerako flora- eta fauna-espezieekin bizitzen ikastea, eta oreka aurkitzea bizikidetzat horretan, errespetuan eta zaintzan oinarrituta.

Elikadura-burujabetzaren alde egiten dugu, nekazaritzako elikagai ekologikoak ekoizteko eta kontsumitzeko sistema osorik barneratzen duen proposamen politiko bat delako, bai eta bide ere planeta hozteko, eta lurraldea eta landa-ingurunea zaintzeko.

3.2. SEKTOREAREN ETA GEH-K BERTAN DUEN PRESENTZIAREN IRAKURKETA

GGKE-en sektorean, berrikuntza pedagogiko handia gertatu da. Gero eta tresna pedagogiko berritzaile gehiago ditugu, eta horrek eragin handiagoa proiektuak egiteko aukera ematen digu. Era berean, uste dugu proposamenen kalitate-maila lantzea eta zabalki garatzea lortu dela, eta politiken koherentziak ematen digun esparrua oso zabala dela, bereziki GEHren ikuspegi kritiko eta eraldatzailea garatzeko.

Hala ere, gure ustez, funtsezkoa da aurrerantzean ere kontuan hartzea gure legitimotasuna indartu behar dugula, gizarte-oinarri sendoa izateko. Alde horretatik, herritarrekiko komunikazioa funtsezkoa da, eragiteko ekintzak eta mobilizazioak egiten direnean, eta zubiak eraiki behar dira agenda komunak prestatu ahal izate-

ko. Garrantzitsua da azpimarratzea testuinguru soziala aldatu dela, eta dinamismoa ezaugarri duten komunikatzeko teknologia eta kode berriak sortu direla. Egun, indibidualismoa gero eta gehiago zabaltzen ari da gizartean, eta, horri dago-kionez, lortu beharrekoa dugu gure hizkuntzak eta bitartekoak egokitzea gizarte horretara iristeko, gune publikoetan gure presentzia indartzearekin batera, zer egiten ari garen jakinarazteko.

Bestalde, sektoreak badu beste ezaugarri bat: sortzeko, aztertzeko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko prozesuetarako irekita dago. GGKE gisa betetzen dugun eginkizunaz gogoeta kritiko eta propositiboa egiteko une egokian gaude. Hausnartzen, eztabaidatzen eta eraikitzen jarraitu nahi dugu, lankidetzazko ikaskuntza-metodologiak erabiliz, eta jakinda abian jartzen ari diren alternatiba zehatzak daudela. Funtsezkotzat jotzen ditugu prozesu horiek, gure barne-koherentzia indartzeko; izan ere, batzuetan, zalantzan jartzen duguna errepro-



Herritarrekiko komunikazioa funtsezkoa da, eragiteko ekintzak eta mobilizazioak egiten direnean, eta zubiak eraiki behar dira agenda komunak prestatu ahal izateko




duzitzen dugu. Uste dugu gure diskurtsoa garrantzitsua dela, baina, batzuetan, gure ekintzak ez daude pertsonaz eta baliabidez behar bezain ongi hornituta. Horregatik, GEHrako funts gehiago nahi ditugu, eta oinarri soziala zabaltzeko ahalginak egin, bide batez funts publikoekiko mentasuna txikiagoa izatea lortzeko.

Barrura begira, asko aurreratu arren, badakigu lankidetzazko lan-eskema gehiago bilatzen ja-

rraitu behar dugula. Oraindik ere elkar gehiago ezagutu behar dugu erakundeok, koordinazioa eta sinergien sorrera indartzeko. Alde horretatik, gure sare-lana indartzeko aukera berriak behar ditugu. Hala ere, ohartzen gara sektorean bertan eta GGKE-etan barruranzko eraldaketak egin behar direla, GEHren esparru zabala benetan sustatu ahal izateko, eta, alde horretatik, urrats handiak egiten ari garela uste dugu. Dokumentu hau da horren adierazgarri.

3.3. EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEAREN BARNEKOAREN IRAKURKETA

Koordinakundeari eta GEH ikuspuntuaren alde egiteari dagokienez, azken urteetan aurrerapauso handiak egin dira, denbora-lerro honetan ageri direnak:



Errealitatearen irakurketan deskribatutako krisi-egoera gorabehera, uste dugu aukeratzat har daitekeela egungo eredu jasanezina eraldatzeko.

COVID-19aren egungo krisiak agerian utzi du gure garapen-ereduari atxikitako ekologia-, gizarte-, ekonomia- eta gobernatza-krisia. Krisiak aukera ematen digu eredu honen eragin sakona ikusartzeko, eta ohartzeko premiazkoa dela ereduaren alternatibak sustatzea. Gainera, uste dugu mugimendu sozialak mobilizatzeko gaitasuna dutela erakusten ari direla, giza eskubideak,

justizia soziala eta ekologikoa sustatzen dituzten proposamenen bidez.

Alternatibak proposatzen ari diren eragile gutxientzat, gero eta argiago dago ikuspegi intersektional batekin lan egin behar dela. Agenden, proposamenen eta antolaketen arteko loturan sakondu behar da, ezinbestekoa delako lortu nahi den eraldaketa horretan aurrera egiteko.

3.4. GEH EZAUGARRITUZ: ERAGILEAK ETA LEHENTASUNEZKO ARDATZAK

3.4.1 Eragileak:

GEH ereduak ezinbestekotzat jotzen du eragileen arteko lan antolatua. Eragile horiek ondoren ageri dira tipologiaren arabera sailkatuta:

Tipologia	Eragile nagusiak
Erakunde publikoak	Administrazio publikoak, bereziki garapenerako lankidetzari, hezkuntza formalari eta ez-formalari lotutakoak.
Hezkuntza formaleko erakundeak	Ikastetxeak, institutuak, lanbide-heziketako zentroak, unibertsitateak, nagusiki.
Hezkuntza ez-formaleko erakundeak	Aisialdiko elkarteak, kirol-, erlijio-, arte-elkarteak, besteak beste.
Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak	Lurraldeko GGKEak.
Mugimendu sozialak	Pobreziaren aurkako mugimendua, arrazakeriaren aurkakoa, feminista, ekologista, LGTBI+ mugimendua, bakezalea, besteak beste.
Komunikabideak	Publikoak eta pribatuak.

3.4.2 Ikuspegiak:

Ondoren, proposatzen den GEH ereduan gure ustez nortasuna ematen duten eta/edo zeharkakoak diren ardatzak aurkezten dira:



GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGIA

GEHn dihardugunok giza eskubideak sustatzen ditugu jarduteko esparru moduan, unibertsaltasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde gaude, eta haiek guztiak batzearen emaitza onartzen dugu: eskubide zibilak, politikoak, sozialak, ingurumen-arlokoak, ekonomikoak eta kulturalak. Eskubide guztiak

zatiezinak eta interdependenteak dira, eta osorik heldu behar zaie.

Ikuspegi horrek premiazkoa da genero-arauak, diskriminatzeko moduak eta desorekak aztertzea, esku-harzeak biztanle-segmentu zaurgarrietara iristen direla bermatu ahal izateko.



BIZITZAREN JASANGARRITASUNA

Bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegitik, ezinbestekoa da gizarteak eta, oro har, erakunde publikoek beren gain hartzea pertsonen premien eta zaintza-lanen ardura, baina, era berean, pertsonak eta natura zaintzea erabaki politiko guztien ardaztat hartu behar dute.

Hartara, bizitza erreproduzitzeko eta pertsonak zaintzeko lanak ikusarazi eta balioesteko konpro-

misoa du GEHk. Lanok emakumeek egin ohi dituzte, behar adinako onarpen sozial eta ekonomikorik gabe. Hortaz, pertsonen eta planetaren jasangarritasuna ekintzen eta eraikuntza politiko, sozial eta ekonomikoaren erdian jarri behar da, eta, aldi berean, autozaintza fisiko, emozional eta mentala bultzatu, funtsezko premisa delako hiru garrenak ere zaintzeko.



HERRITARTASUN GLOBAL ETA KONPROMETITUA

Herritartasun globalaren ideiak komunitate global batekoak izatea aldeztu du, eta barruan hartzen ditu pertsona guztien eskubideak, baina, era berean, globalizazio kapitalistaren eta dituen ondorioen aurka jarrera kritikoa izateko ardura sustatzen du, errealitatea eralda dezaketen trebetasunak lortzeko.

Herritartasun globala sustatzeko, GEHk desparekotasunei buruzko kontzientzia hartzeko prozesuak eta ahalduntzea bideratzen eta bultzatzen

ditu, pertsona bakoitzarentzat bezala kolektiboentzat ere; botere- eta pribilegio-harremanak aztertzen ditu; eta bidegabetzat eta jasanezintzat jotako eredu hori eraldatzeko jardutea sustatzen du. Nahitaezkoztat jotzen du herritar horiek maila guztietan erabakiak hartzen direnean benetan parte hartzea bermatzeko prozesuak eta dinamikak sustatzea. Era berean, onartzen du emakumeak subjektu politikoak eta eraldaketaren protagonistak garela.



IKUSPEGI LOKALA/GLOBALA

Ikuspegi horrek herrialde aberastu eta pobretuetako pertsonen bizitzak lotzen dituzten faktoreak ulertzea interpelatu gaitu, ulertuta sistemak eragina duela batzuetan zein besteetan, eta eraldaketaren ardura jarrita ez bakarrik herrialde pobretuetan, bai eta, eta batez ere, Ipar Globalen ere, eredu ekonomiko, politiko, sozial jasangarria sustatzeko jarrerak eta ohiturak izateko premiaren barruan.

Hartara, sistemaren interdependentzietan, desparekotasunen egiturazko kausetan eta egungo garapen-ereduaren inpaktu lokal eta globaletan sakontzen du, eta herritar global moduan justiziarren eta berdintasunaren aldeko borrokan dugun erantzunkidetasuna eskatzen du.



FEMINISMOAK ETA ANIZTASUNA

Zuzentasunean, justizian eta erantzunkidetasunean oinarritutako genero arteko harremanak sustatzen ditu GEHk. Eta hala, emakumeek ahalduz pertsonal eta kolektiboaren aldeko prozesuak bultzatu ditzakete, eta gizonek, berriz, maskulinitasuna bizitzeko modu berriak sor ditzakete, patriarkatuak ematen dizkien pribilegioei uko eginda.

Hau da, GEHtik pribilegioak zuzenki zalantzan jartzen dituzten genero arteko harremanak sustatzen dira. GEHk erdigunean jartzen ditu sexua-

ren, generoaren, desiraren edo adierazpidearen arabeko identitateen aniztasuna eta esparru horren barruko harremanak. Desberdintasunak ikuspuntu intersektionaletik aztertzen ditu, eta pertsona asko zaurgarri bihurtzen dituzten askotariko zapalkuntzak aitortzen; arrazakeria eta klasismoa dira, alde horretatik, patriarkatuak eragindakoei gehitutako beste zapalkuntza batzuk. Feminismo dekolonialak ere aipatu behar dira, ertzetatik datorren proposamen bat delako, pribilegioen eta zapalkuntzen ikuspuntutik.



KULTURARTEKOTASUN KRITIKOA

Kulturartekotasun kritikoa pertsona, komunitate, herri eta kulturen artean harreman zuzenak erakitzeari dagokio. Taldeak paradigma arrazazko, mendebaldar, moderno eta kolonial baten arabera diskriminatzen dituzten egiturak eta erakundeak ikusarazten, borrokatzen eta eraldatzen ditu.

Alde horretatik, GEHk aurreiritzi diskriminatzaile eta hierarkiko zaharrak gainditzea proposatzen du, eta, horretarako, jakintza eta sentitzea deskolonizatzeko prozesua egin nahi du, zapalkuntza-sistemak hausteko eta horizontalki antolatzeke esperientziak, jakintzak eta kosmismoak, askotariko kulturen arteko ekitatean eta berdintasunean oinarrituta.

3.5. ZER JOMUGA DU EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEAK GEH-REN ESPARRUAN?

Nahi den etorkizuna: Barne-mailan, GGKE-en eta Koordinakundearen aintzatespen handiagoa lortzea erakunde publikoen aldetik, bai eta Gizartea GGKE-en Eraldakuntzarako Hezkuntzarena ere EAEko gizartearen barruan. Horretarako, hainbat estrategia (prestakuntza, ikerketa, sentsibilizazioa eta parte-hartzea) garatuko dira, GGKE-ek izandako esperientzia eta ikasitakoa oinarritzat hartuta, finantzaketa handiagoa izango da GEH ekimenetarako, eta lankidetzaren proiektuek ikuspegi hori hartuko dute eragin handiagoko ekintzekin.



Estrategiak:

1. GEH edukiz betetzea eta zehaztea, gogoeta eta praktika oinarritzat hartuta:

- GGKEen GEH ikuspegi partekatuaren bidean aurrera egitea, prestakuntzen, mintegien eta/edo truke-esperientzien bidez. GGKEek ikuspegi hori hartzea eta eraginkor bihurtzea eragozten duten gabeziak identifikatzea.
- Praktikan jartzea pertsonak prozesuen erdigunean jartzen dituzten proposamen metodologikoak. Gure proposamenen oinarrian dauden ikuspegi batzuk: herri-hezkuntza; prozesu kolektiboak eta parte-hartzaileak; pedagogia feminista; proiektuen bidezko ikaskuntza; lankidetzazko komunikazioa; komunikazio komunitarioa; besteak beste.

2. Lan antolatua bermatzea:

- GGKEen artean: GGKEen arteko koordinazioa sustatzea, eta, horretarako, sareak eta lantaldeak sortzea mapaketak, aurkezpenak, materialak eta baterako hezkuntza-, eragite- eta mobilizazio-ekintzak egin ahal izateko, GEH lurraldean posiziona dadin.
- Administrazioarekin: Koordinakundearen eta administrazio publikoen arteko harreman onaren bidez, batera lan egitea lan-planak egiteko eta GEHrako finantzaketa-lerro egoiak prestatzeko, (lankidetzari lotutakoa ere bai, eragin politikorako taldearen bitartez).
- Beste eragileekin: batera lan egitea beste gizarte- eta hezkuntza-eragile batzuekin GEH garatzeko, bai eta justizia sozial eta zuzentasun handiagoa lortzeko, giza eskubideak bermatzeko eta ingurumen-jasangarritasuna bultzatzeko antolatzen diren mugimendu sozialekin ere.

3. GEH lantzen duten GGKE-ek ekintza zehatzak egitea hura posizionatzeko:

- Koordinakundeko GEH arloa bultzatzea, herritartasun global, kritiko eta konprometituaren sustatzearen alde sentsibilizatzeko, mobilizatzeko eta/edo eragiteko kanpainak gara ditzan eta/edo haietan parte har dezan.
- GEH ikuspegia ezartzea hezkuntza formaleko eta ez-formaleko guneetan prozesu moduan, eta administrazio publikoekiko nahiz ardura duten erakundeekiko (Hezkuntza Saila, berritzeguneak, gazteria, besteak beste) koordinazioa sustatzea.

4. GEHri ikuspegi integral batetik ekitera bultzatzea:

- Gogoetarako guneak indartzea, GEH lan taldea sendotzeko estrategiak identifikatu eta abian jar ditzaten.
- Aurrera egitea gizartea eraldatzeko prozesuetan diharduten GGKE-en arteko lankidetzakulturaren sustapenean, egungo lehiakortasun-egoera gainditzeko.
- Maila pertsonalean eta zaintzetan trukea sustatzea eta aberastea.





EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

WWW.ONGDEUSKADI.ORG